

Foru eta Udal Hauteskundeak
2023ko maiatzaren 28a
Hauteskunde programa laburtua



UPN

Nafarroan erabakiak hartzen
dituen alderdi bakarra



Hausnartu, ekin, erabaki

NAFARROAN, UPN

Nafarroa ez da gaur egun UPN gobernatzen ari zen Espainiako eta Europako eskualde erreferentea. Gaur egun, nafarrok zerbitzu okeragoak jasotzen dituzte, zerga gehiago ordaindu arren eta Foru Gobernuak UPNk azken legegintzaldian izan zituenak baino 5.116,3 milioi euro gehiago izan baditu ere.

Ziur nago Nafarroaren norabidea hobetsi daitekeela EH Bilduren esku egoteari utziz gero, eta gure foru-erregimena aprobetxatu eta Nafarroak behar duenaz pentsatzen duten politika propioak abian jartzen badira, ez Madrilek edo euskal independentismoak behar duenaz.

2019an PSNri botoa eman zioten nafar anitz desengainaturik daude. Engainatuta sentitzeaz gain eta Maria Chivitek legegintzaldi osoan EH Bilduren zuriketa eta sendarazteaz gain, Nafarroak okerrera egin duela hautematen dute, kudeaketa txarragatik, batez ere osasungintzan, politika fiskalean, enpleguan eta azpiegituretan.

Hala ere, pertsona horiek eta, nik neuk bezala, Nafarroak bide horretatik bertze lau urte gehiago ezin duela jasan pentsatzen duten guztiek jakin behar dute bertze aukera bat dagoela eta lidergo-posizioak berreskura ditzakegula osasungintzan, fiskalitatean, enpleguan, gizarte-politiketan edo lehiakortasunean.

Hori lortzeko, UPN da PSN eta EH Bilduren Nafarroako gobernu berri baten alternatiba sendo eta erreal bakarra. Ezagutza, esperientzia, talde prestatuak eta Nafarroarako proiektu sendo eta kaudimenduna ditugu. Zenbat eta indartsuagoa izan eta laguntza handiagoa jaso, orduan eta zailagoa izanen zaio sozialismoari Nafarroako giltzak berriro ere EH Bilduri ematea.

Gure proposamenak irakurtzera eta pentsatzera gonbidatu nahi zaitut, maiatzaren 28an erabaki dezazun.

Nafarroan gobernu aldaketa bat egin daiteke UPNri lagunduz.

Mila esker zure denboragatik.

JAVIER ESPARZA ABAURREA

Nafarroako Gobernuako presidentziarako UPNko hautagaia



UPN

Programa

Hausnartu, ekin, erabaki.

AURKIBIDEA

1. NAFARROA

1.1. Forua eta autogobernua	6
1.2. Askatasuna eta bizikidetzeta	7
1.3. Euskara	8
1.4. Cultura	9

2. GARAPEN ESTRATEGIKO ETA JASANGARRIA

2.1. Enplegua	11
2.2. Zerga politika	12
2.3. Industria. I+g+b. Internazionalizazioa	14
2.4. Azpiegiturak, mugikortasuna eta garraioa	15
2.5. Eraldaketa Digitala	16
2.6. Merkataritza	17
2.7. Ekintzailletza eta gizarte ekonomia	18
2.8. Talentua: sortu, erakarri eta atxikitzea	19
2.9. Lehen sektorea	20
2.10. Toki garapena	21
2.11. Eredueko energetikoa eta jasangarritasuna	23
2.12. Turismoa	25
2.13. Gobernantza, funtzio publikoa eta justizia	26
2.14. Herrisegurtasuna eta larrialdiak	28



3. GIZARTE-GARAPENA ETA ONGIZATEA

3.1. Osasuna	30
3.2. Hezkuntza	34
3.3. Adineko pertsonak	37
3.4. Mendeko pertsonak. Autonomia eta arreta soziosanitarioa sustatzea	38
3.5. Desgaituak	40
3.6. Gizarte zerbitzuak eta gizarte barne-hartzea	42
3.7. Gazteak	44
3.8. Aniztasunari arreta	46
3.9. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna. Genero indarkeria. Sexu aniztasuna	47
3.10. Familiak eta haurrak	49
3.11. Etxebizitza	51
3.12. Garapenerako elkarlana	52
3.13. Kirola	53



1 Nafarroa



1.1. Forua eta autogobernua

HELBURUAK

1. Nafarroako errealitate instituzionalaren eta bere sinboloen defentsa.
2. Nafarroako forutasunaren defentsa eraso independentista eta zentralisten aurka eta autogobernuaren garapena.
3. Nafarrak Foruekin gehiago identifikatzea eta Nafarroarekiko atxikimendua handitzea.

NEURRIAK

- Legebiltzarrera eramango dugu indarrean dagoen Sinboloen Foru Legearen erreforma, beste komunitateetako sinboloak eraikin ofizialtan behin eta berriz jartzea zigortu dadin.
- Eraikin publiko guztietan Espainiako eta Nafarroako bandera ofizialen presentzia bermatuko dugu.
- Estatuarekin negoziatuko dugu LORAFNAn jasotako eskumen guztien transferentzia eta, zehazki, bekena eta l+G+b-rena.
- Foruaren eta Nafarroako sinboloen garrantzia zabalduko dugu, erakunde eta ikastetxeen bitartez.



1.2. Askatasuna eta bizikidetza

HELBURUAK

1. Demokrazia, bizikidetzarako eta askatasunerako bide bakarra.
2. Memoriari bizirik eutsi, kontraeraren eraikuntza objektiboa sustatu, eta memoria, egia eta terrorismoaren biktimen justizia bultzatuko ditugu.

NEURRIAK

- Indarkeria terroristaren edozein justifikazio, ageria nahiz estalia, deslegitimatuko dugu.
- Parlamentura eramango dugu erradikalismo politikoari aurrea hartzeko Foru Legea.
- Terrorismoaren Biktimei buruzko Foru Legea aldatuko dugu, biktima horiei enplegu publikora sartzeko kuota bat ezartzeko eta Toki Erakundeak terrorismoa goratzen eta bermatzen duten pintadak eta pankartak ezabatzerara behartzeko.
- Biktimak justiziaz tratatzeko moduko kontraera eta memoria eraikitzeke lan egingo dugu.



1.3. Euskara

HELBURUAK

1. Gure lurreen euskararen iraunkortasuna bermatzea.
2. Euskara despolitizatzea eta haren erabilera librea bermatzea.
3. Euskaldunen hizkuntza gaitasunak hobetzea.

NEURRIAK

- Euskararen despolitizaziorako adostasun soziala bilatuko dugu.
- Euskara zonifikazioaren arabera sustatuko dugu, euskararik ez dakitena edo erabili nahi ez dutena ez penalizatzeko moduan, batez ere diru-laguntzak, kontratuak eta lanpostu publikoak eskuratzekoan.
- UNESCOren irizpideen arabera, ama-hizkuntzako hezkuntza eleaniztuna sustatuko dugu (euskaraz nahiz gaztelaniaz), familiek eskatzen dutenaren arabera ikastetxe elebidunak eskainiz, eta haurrak arau indardunek agindu bezala eskolaratuz, D ereduan seme-alabak matrikulatzen dituzten familiei gehigarritzko abantailarik eman gabe.



1.4. Kultura

HELBURUAK

1. Kulturaren babesa hobetzea.
 2. Gure ondare historiko eta kulturalari eusteko lana hobetzea.
 3. Nafarroako kultura Foru Komunitatetik kanpo sustatzea.
 4. Sektore publikoko kultur jardueren kontratazioan eta kudeaketan arbitrariotasuna eta praktika txarrak ezabatzea.
-

NEURRIAK

- Nafarroako Aurrekontu Orokorren %1,5 Kultura arlora bideratuko dugu.
- Nafarroako Artistaren Estatutua onartuko dugu.
- Geure talentu sortzailea Nafarroan atxikitzen saiatuko gara, sortzaileak gure Komunitatean geldi daitezen baldintzak hobetuz eta horrela talentuaren galera galaraziz.
- Interes Kultureko Ondasunen zaharberritzea finantzatzeko Foru Legea sustatuko dugu.
- Sektore publikoko kultur jarduerak kontratatuzko eta kudeatzeko jardunbide egokien kode bat egingo dugu.
- Kultura azpiegiturak eta ekipamenduak hobetuko ditugu.



2

Garapen estrategiko eta jasangarria



2.1. Enplegua

HELBURUAK

1. Enplegu osoa Nafarroarentzat.
 2. Enplegu kalitatezkoa eta barne-hartzailea.
 3. Lan istripuak errotik gutxiagotzea.
-

NEURRIAK

- Politika guztiek Nafarroan berriro enplegu osoa lortzea izanen dute helburu, UPNren gobernaldietan izan zen bezala.
- Gizarte hitzarmenaren alde eginen dugu apustu eta hartarako 2024ko bukaeran Enplegu Plan berria onetsiko, gizarte eragile handienekin hitzarturik.
- Enplegurako Eskola Tailerrak berreskuratuko ditugu, garrantzi handiko enplegu politika izan daitezen, UPN gobernaldian izan ziren bezala. Eskola horiek adin guztientzat irekiak egonen dira eta bai titulu bat duten baina lanik aurkitzen ez duten pertsonentzat ere; iraupen luzeko langabeentzat, esaterako.
- Lan munduan txertatzeko berriazko programa bat abiatuko dugu, Errenta Bermatua hartzen duten pertsonentzat, iraupen luzeko langabeentzat eta 50 urtez goitikoentzat.
- Gazteendako Enplegu Plan berriazkoa abian jarriko dugu.
- Lan istripuak gutxiagotzeko presako eskuhartze plana onetsiko dugu.
- Enplegua VWn eta bere hornitzaile-parkean mantentzea defendatuko dugu, langileen eta enpresen eskutik beharrezko akordioak erdietsiz.



2.2. Zerga politika

HELBURUAK

1. Seme-alabak dituzten pertsona eta familien beharrei arreta ematea, haien diru-sarrerak ahalean handituz. Hartarako modutuko dugun zerga sistemak arreta berezia eginen ere dio etxebizitza bat esku-ratzeko zailtasunari eta bai desgaituek izaten dituzten berariazko zailtasunei ere.
2. Ekonomiaren jarduera dinamizatzea, ekintzailletza, autonomoak, enpresak sortu eta erakartzea eta enplegua sortzea bultzatzen duen zerga-sistema bat ezarriz, enpresa ehuna sendotzea helburu.
3. Gure herrietako garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea. Hartarako eratuko den zerga sistemak lagundu beharko du herrietako jende-galtze problema konpontzen, horrela gure komunitatea egituratu eta haren barne-lotura handitzeko.

NEURRIAK

- PFEZeko tributazioa murriztuko dugu, eta bai, zergaren maila apale-netan, tarteen kopurua gehituko ere, horrela ez izateko gehiago, gaur garen bezala, Espainian zerga gehien ordaintzen den komu-nitatea.
- PFEZeko minimo pertsonal eta familiarretarako murrizketen sistema berreskuratuko dugu.
- Familiendako eta familia seme-alabadunendako murrizketak sortuko ditugu: murrizketa hori aurrez ordainduko da, hilean 100 euroko zuzeneko laguntza gisa (1200 €ko murrizketa) 3 urtez beherako hau-rrak dituzten familia guztiendako; laguntza hori hilean 150 €-tara handituko da (1800 €ko murrizketa) guraso bietako batek lan egiten duenean, eta hilean 200 €tara (2400 €ko murrizketa) bi gurasoek lan egiten dutenean edo guraso bakarreko familia denean.

1200 €ko murrizketa, zuzenean eta aurrez ordaindu beharrekoa, fa-milia guztiendako zuzeneko laguntza gisa, hilean 100 €koa, 3 eta 7 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzat, hirugarren haurre-tik aurrera.



- Familia larriendako murrizketak ezarriko ditugu.
- Aita nahiz ama izateagatik dauden laguntzak zergaz salbuetsiko ditugu..
- % 100 beheratuko dugu Ondarearen gaineko Zerga.
- Ondorengotza eta Emaizten gaineko Zergaren lehiakortasuna hobetuko dugu, eta % 0,8ko zerga berriro ezarriko, ondorengoan eta aurrekoen arteko jaraunspenen eta emaitzen kasuan.
- Sozietateen gaineko Zergan, zergaren tipo orokorra % 24ra murriztuko dugu, eta %22ra enpresa txikiendako tipoa, Nafarroa berriz lehiakorra izan dadin enpresak gure lurrera erakartzerakoan eta horrela gai izan dadin lantokiak sortzeko. Sozietateen gaineko Zergan tributazio tipo gutxienekoak ere murriztuko ditugu.
- Autonomoentzat, beren jardueraren errendimendu huts positiboari aplikatu beharreko kenkari portzentaiak handituko ditugu.
- Langile autonomoei dagokienez, beren jardueraren errenta garbi positiboari aplikatu beharreko kenkarien ehunekoak handituko dugu.
- Landa eremuan zerbitzu publikoak ematen dituzten profesionalei zerga-pizgarriak ezarriko dizkiegu.
- Bereziki despulatutako landa eremuetan jarduera ekonomikoen gaineko zergak jaitsiko ditugu.



2.3. Industria. I+G+b. Internazionalizazioa

HELBURUAK

1. Esportazioen bolumena eta produktibitatea (soldata/produzitutako unitatea) areagotzen duen industria-ehun lehiakorra sortzea. Industriaren BPG > %35.
2. Nafarroa I+G+b-n aitzindari bihurtzea.
3. Internazionalizazioaren aldeko apustu sendoa

NEURRIAK

- Nafarroa Berrindustrializatzeko Plan berri bat onartuko dugu 3 programarekin: sektore estrategikoetako hornitzaileak erakartzeko programa, I+G+b estrategikoa erakartzeko programa, eta inbertsio aukera berriak garatzeko programa bat, iraunkortasuna, gizarte barne-hartzea, lehiakortasuna eta nazioartekotzea irizpide direla, eta balio kate globalen parte izatera bideratua.
- Ekonomia eta enpresa gararazteko programa berariazkoak jarriko ditugu martxan, epe ertain eta luzean, Nafarroako sektore estrategikoetarako: automozioa, biosanitarioa, nekazaritzako elikagaiak eta berriztagarriak.
- Finantziario egonkorraren aldeko konpromiso "benetako" bat hartuko dugu legealdian, eta konpromiso horrek plangintzaren arabera I+G+b estrategia sustatzeko aukera emango du, BPGaren %3,5 I+G+b-ra bideratzea helburu.
- Zerga eta gizarte laguntza berariazkoak ezarriko ditugu Nafarroatik kanpoko talentu profesionala erakartzeko eta atzerrian diren nafarren talentua Nafarroara itzularazteko, talentu digitalean (IKT) arreta jarritz.
- 400 Kw-ko linea baten eraikuntza sustatuko dugu Nafarroan elektrizitate-hornikuntza-gaitasuna hobetzeko, industrian bereziki.
- Nafarroako Internazionalizazio Plana (PINa) garatuko dugu, aurrekontuko partida handituz.



2.4. Azpiegiturak, mugikortasuna eta garraioa

HELBURUAK

1. AHTaren bidez Espainiarekin eta Europarekin loturiko Nafarroa.
2. Gure errepideen lehengo mantentze-maila eta kalitatea berreskuratzea.
3. Nafarroako Ubidea Erriberara iristea, eskura dagoen ur-potentzial guztia daramala.
4. Mugikortasun jasangarria
5. Garraio sektorearen egoera hobetzea.

NEURRIAK

- Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza bizkortuko dugu, Erriberako biztanleek edateko ura legealdia bukatu baino lehen izan dezaten. Estatuari finantziazioa proposatuko diogu, eta kanona 50 urtetan ordaintzea eskatuko diogu.
- Estatuarekin hitzarmen berri bat sustatuko dugu, bide emango duena Nafarroan AHTaren eraikuntza gidatu eta, ondorengo konpentzazio metodoaren bidez, gure Komunitatea zeharkatzen duten azpiegitura lanak aurrera eramateko.
- AHT Ezkion barrena Euskal Y-arekin lotzea sustatuko dugu eta Iruñeko trenbidearen begizta kendu eta Etxabakoizko geltoki berria egitea lehenetsiko.
- Tuterako-Medinaceli autobideko obrak behingoz amaitzeko exijituko diogu Espainiako Gobernuari.
- N-121-A errepidea zabaltzeko proiektuari ekingo diogu, 2+2 errepide bihurtzeko, eta bai ondoren gauzatuko ere, Estatuak lan hauetan parte har dezan bilatuz.
- Logistika eta garraioaren sektorea bidesariekin zigortzea saihestuko dugu, Europako araudiak ezinbestekotzat jotzen duen arte.



2.5. Eraldaketa digitala

HELBURUAK

1. Nafarroa osoaren eraldaketa digitalean aurrera egitea.
 2. IKT talentua erakartzea, sortzea eta atxikitzea.
-

NEURRIAK

- Zuntz optikoa oraindik ez duten txoko guztietara hedatzen bukatuko dugu, nafar guztiek eskura izan dezaten, non ere bizi edo lan egiten duten.
- 5G teknologia mugikorra dinamizatu eta bultzatuko dugu, sektore ezberdinetako nafar enpresak eragingarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezen bultzatzeko, batez ere gure lurraldeko ekonomiarentzat garrantzitsuenak diren sektoreetan (zibersegurtasuna, turismoa, energia berriztagarriak, nekazaritza, abeltzaintza...).
- Eskubide Digitalak Bermatzeko Foru Legea onartuko dugu.
- IKT talentua Nafarroan sortu, atxiki eta erakartzea sustatzeko neurriak ezarriko ditugu.
- Enpresei, ETEei eta autonomoei beren eraldaketa digitalaren prozesuan lagunduko diegu, Enpresen, ETEen eta Autonomoen Digitalizazio Plana garatuz eta Next Generation Europako funtsetarako deialdietan parte hartzeko prozedura burokratikoak erraztuz.



2.6. Merkataritza

HELBURUAK

1. Nafarroako eremu guztietan merkataritza-ekipamendu behar adinako eta orekatua.
 2. Merkataritza lehiakorra eta biziberritua.
-

NEURRIAK

- Merkataritza Antolamendurako Plan Zuzentzailea onartuko dugu, Nafarroako eremu guztietan behar adinako merkataritza ekipamendua izan dadin bermatuko duena, merkataritza-formatu ezberdinen arteko oreka mantentzeko irizpideekin.
- Nafarroako eskualde-buruetan merkataritza sustatuko dugu.
- Merkataritzarako berrikuntza programak eta teknologia berriak bultzatuko ditugu.
- Nafarroako merkatariei teknologia eta kudeaketa tresnetan eta kostuen murrizketan trebakuntza emango diegu.



2.7. Ekintzailletza eta gizarte ekonomia

HELBURUAK

1. Ekintzailearen figura indartzea.
 2. Nafarroa Ekintzaileendako Lurralde.
 3. Gizarte-ekonomiako enpresa gehiago jarduera-sektore guztietan.
-

NEURRIAK

- Nafarroa enpresa bat ezartzeko denbora gutxien behar den komunitate bihurtuko dugu, burokraziak murriztuz eta kenduz.
- Zero kuota ezarriko dugu autonomo berrientzat, gazteentzat eta 60 urtetik gorakoentzat, euren jardueraren lehenengo 2 urteetan. Beste bi 2tara luzatu ahalko da.
- Barne-ekintzailletza sustatuko dugu berrikuntza-programen eta enpresa handiendako pizgarrien bidez, "startup" jarduera beren produktuen eta zerbitzuen ekoizpen-katean txerta dezaten eta enpresetan barne-ekintzaillezaren garrantziaz ohartarazteko ekintzen bidez.
- Gizarte-ekonomiako enpresei laguntza-lerro batekin lagunduko diegu sozietateen eta enpresen kudeaketa hobetzeko tresnak ezartzeko.



2.8. Talentua: sortu, erakarri eta atxikitzea

HELBURUAK

Nafarroa erakargarri bihurtzea enpresentzat, inbertsioentzat eta pertsonentzat mundu osoko eskualdeekin duen lehian, 2 ildoren bidez: talentua sortu eta atxikitzea eta talentua erakarri eta itzularaztea.

NEURRIAK

- Zerga, etxebizitza eta familia integratzeko laguntzak ezarriko ditugu atzerriko talentu profesionala erakartzeko eta atzerrian diren nafarren talentua itzularazteko.
- Gure Komunitatean talentua benetan erakarri eta atxikitzeke moduko zerga-neurriak garatuko ditugu. Horretarako, besteak beste, Nafarroara aldatutako langileen erregimena aldatuko dugu.



2.9. Lehen sektorea

HELBURUAK

1. Nafarroako Lehen Sektorea indartu eta azkar garatzea.
2. Nafarroa berriro ere I+G+b-n erreferentziako komunitate izatea nekazaritzako elikagaien sektorean.
3. Nafarroa, erreferentea izatea bioenergian.
4. Lehen sektorerako ura bermatzea.
5. Ehiza eta arrantzarari euspena.

NEURRIAK

- Lehen sektoreari behar adinako aurrekontua eskainiko diogu, sektorea aurrera ere Nafarroako ekonomiaren zutabe bat izan dadin.
- Ega aldean ubidearen 1. fasea zabaltzen bukatuko dugu eta Lerín aldean EUTE bat eraikiko da, edateko eta industria erabilerarako kalitatezko ura ahalik eta populazio handienari emateko, Lokizko akuiferoak orain duen ingurumen-presioa arinduz.
- Nekazaritza eta abeltzaintza 4.0 sustatu eta ezarriko dugu eta IKTak garatzeko eta nekazaritza-abeltzaintza tradizionaletik teknologia berriek lagundutako batera pasatzeko behar adina baliabide eskainiko ditugu.
- Nafarroako ureztalurretan energia berriztagarriak erabiltzeko laguntza lerro bat jarriko dugu martxan.
- Ezer askorik egin ez den bi legealdiren ostean, Nafarroako ureztalurrak modernizatzeari ekingo diogu, azpiegiturak berritzeko eta lur-sailen tamaina egokitu ondoren nekazariak ekoizpen errentagarriak eta nekazaritza-industriaren eskakizunen araberakoak lortu ahal izan ditzaten, estrategia baten barruan: Nafarroako Ur Plana 2023-2050, departamentu artekoa.



2.10. Toki garapena

HELBURUAK

1. Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako 4/2019 Foru Legea indargabetzea (Toki Mapa)
2. Toki Administrazio hurbila, eragingaria eta iraunkorra.
3. Nafarroa osoan zerbitzu berberak ematea modu eragingarri eta solidarioan.
4. Toki Erakundeen benetako beharrentzat egokia den inbertsio plan errealista bat.
5. Toki entitateen finantziazio solidarioa eta behar adinakoa nafar herritar guztien beharrak estaltzeko, zeinetan herri batzuen ekarpenaren igoera ez den beste batzuen kaltetan izanen.
6. Iruñeko eta Tuterako hiriburu estatusa.
7. Landa eremuak jendehustea galarazteko lurralde eredua.

NEURRIAK

- Iruñari eta Tuterari Hiriburutza Estatusa emango diegu, horretarako aurrekontuarekin.
- Administrazioa erraztu egingo dugu, Administrazio Elektronikoa sustatuz, baina zerbitzuak aurrez aurre egitea bermatuz eta kalitatezko zerbitzu publikoak emanaz.
- EH Bilduren Toki Mapa indargabetuko dugu eta toki maparen banaketa berria proposatuko.
- Berehala Toki Entitateendako Inbertsio Plan bat onartuko dugu, garai berrietarako eta herritarren eskakizun berrietarako egokia, tokiko enpresei lantokiak eman, herrien garapen ekonomikoa sustatu, eta, azken batean, Nafarroako herri guzti-guztietan bizi-kalitatea hobetzeko modukoa.



- Finantziazioa eraldatuko dugu Nafarroa osoan oinarrizko zerbitzuak bermatzeko eta pentapartito ereduak sortu dituen desberdintasunak galarazteko.
- Toki Erakunde guztietan kostu-kudeatze sistema bat ezarriko dugu, erbitzuak modu eragingarrienean ematen lagunduko diona.
- Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Lege berri bat onartuko dugu, jarduera horiek gure sustraien zati gisa babestu eta defendatuko dituen eta ehiztari eta arrantzaleekin parte hartzeko prozesu sendo batetik abiatuko dena.
- Ehiza-fauna kontrolatzen lagunduko diegu ehiztariei.

Foru eta Udal
Hauteskundeak

Programa
Garapen
estrategiko
eta jasangarria



2.11. Eredu energetikoa eta jasangarritasuna

HELBURUAK

1. Nafarroa, bere karbono aztarna gehien murrizten duen eskualde bihurtzea.
2. Energia berriztagarrietan eta trantsizio energetikoan aurrendari.
3. Gure kapital naturalaren kalitate, kantitate eta produktibitateari eustea.
4. Nafarroa osoan behar adina ur egoki eskura egon dadin bermatzea.
5. Ur-araztea garatzea, euri-uren isurketa hobeki kudeatuz eta azalera datozen gai kutsatzaileak hobeki tratatuz.
6. Uraren ziklo integralaren kudeaketan energia hobeki erabiltzea.
7. Lurralde osoan hondakinen kudeaketa koordinatua egitea.
8. Hiri hondakinen kudeaketan energia hobeki erabiltzea.
9. Basoetako suteak aurrez galarazteko lana.

NEURRIAK

- Zenbateko karbono aztarna igortzen den neurtzeko programa bat jarriko dugu martxan, Komunitatea eta bere eragileak nondik abiatzen diren finkatzeko.
- Sektore guztietan karbono igorpena sistematikoki murrizteko laguntzak eta pizgarriak ezarriko ditugu, neutraltasun egoera batera lasterrago iristea helburu. Esaterako, murrizketa sistematikoan saiatzen diren enpresen zergak berrikusiz.
- Enpresek ekonomia zirkularreko ereduak har ditzaten aholku emango diegu, lantokiak sortzen eragingarriagoak izateko. I+G+b plan estrategikoen bidez, enpresetan ekonomia zirkularreko ereduak ezartzea bultzatuko dugu, eragingarriagoak, eragin gutxiagokoak eta kostu gutxiagokoak izan, hedatu eta lantokiak sor ditzaten bultzatzea helburu.



- Gaur dauden energia berriztagarrien parkeen berrindartzea sustatuko dugu, Komunitatearen potentzial energetikoa ahalik eta etekin gehien ateratzeko, proiektu berriztagarrietan parte hartzen duten eragileen arteko bideratzaile eta bitarteko garelarik, energia garbia sortzeko proiektuak ahalik eta arinenik gauza daitezzen.
- Hidrogeno berdea bezalako teknologia berriak sustatuko ditugu, Nafarroako industria, Espainiako eta Europako politikekin batera dadin bultzatuz.
- Argindar ekoizpen %100 berriztagarria lortzeko planak ezarriko ditugu.
- Arrantza eta Ehizarako Foru Lege berri bat onartuko dugu, jarduera horiek gure sustraien osagai direlako babestu eta defendatzeko, ehiztari eta arrantzaleekiko parte-hartze prozesu bizia oinarri.
- Ehiztariei ehiza-fauna kontrolatzeko lanean lagunduko diegu.
- Hiri, nekazaritza eta industria guneetan uholdeen aurkako plana ezarriko dugu, herritarrak eta haien ondasunak babesteko moduko uholde-arriskupeko eremuak definituz.
- Prebentzio politiken sistema integratua ezarriko dugu.



2.12. Turismoa

HELBURUAK

1. Espainiako eta atzerriko bisitari kopurua eta bisitari bakoitzeko gastua handitzea.
 2. Nafarroako Turismo sektorea eta marka ikusgaiago egin eta Donejakue Bidea edo Gastronomia bezalako produktuak indartzea.
 3. Turismo berde eta jasangarrian goreneko kalitatea ematea.
-

NEURRIAK

- Landa-etxeak berritzeko irispide handiko laguntza programa jarriko dugu martxan, etxeok turismo-ostatu bihurtzeko (landa etxeak, hotel txikiak...).
- Nafarroako Erresuma marka erreferentziazko eta prestigiozko marka gisa sustatuko dugu, aurreko gobernuek lausotzen lagundu baitute.
- Nafarroa helmuga gastronomiko gisa sustatuko dugu.



2.13. Gobernantza, funtzio publikoa eta justizia

HELBURUAK

1. Nafar gizartearekiko konpromiso etikoa eta ustelkeriarekiko zero tolerantzia.
2. Erakunde benetan gardenak.
3. Herritarrei aurrez aurreko arreta bermatzen dien Administrazio berritzailea, hurbila eta eragingarria.
4. Langile publiko trebatuak eta aitortuak.
5. Justizia independente azkarra eta eragingarria.
6. Pertsonen eta pertsona-elkarteen parte-hartzea, funtsezko elementua politikak lantzeko eta garatzeko. Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektore indartsu eta ondo finantzatua.

NEURRIAK

- Gobernuaren Foru Legea aldatuko dugu, gobernuak 10 kontseilari baino gehiago ez izatea bermatzeko eta Administrazio goi karguen eta burutzen kopurua nabarmen murriztuko dugu.
- Foru parlamentarien kopurua gaur egun dauden 50etatik 40era jais-teko araudi aldaketa aztertuko dugu.
- Zerbitzu publiko guztietan aurrez aurreko arreta bermatuko dugu, prozedura elektronikoen ezarpenean aurrera egitea ezertan galara-zi gabe baina beti borondatezkotasunaren printzipiotik abiatuta. Herritar bakoitzak erabaki dezala nola nahi duen Administrazioak arreta ematea.



- Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorea Sustatzeko Legea proposatu dugu berehala onesteko, Hirugarren Sektore horren parte diren entitateak indartzera zuzendua, bere oinarri soziala garatzearen alde egiteko eta agenda politikoko erabakiak hartzerakoan sektore horrek duen parte-hartzea sustatzeko eta gizarte-, osasun-, hezkuntza- eta enplegu-politiketan duen esku-hartzea sendotzeko, finantziazio-tresnak hobetuz, batez ere urte anitzeko finantziazioa ezartzen dutenak, finantziazioa ahalean sendotu dadin.
- Krisiaren aurretik nafar funtzionarioek zituzten lan baldintzak pixkanaka berreskuratzeko plana ezarriko dugu.
- Funtzio Publikoaren Estatutu berria onartuko dugu, funtzionarioen motibazioa eta garapena sustatzeko modukoa, hartarako administrazio-ibilbidea, errendimenduaren neurketa eta kudeaketa, mugikortasun funtzionala eta zerbitzu publikoan sartzeko eta lanbide-garapenean benetako aukera-berdintasuna erabiliz. Aldaketa horrek Boloniako Planaren ondoriozko kalifikazio berriak hartuko ditu kontuan.
- Espainiako Gobernuari eskatuko diogu Administrazio langileen dako errelebo-kontratua gauzatzeko.
- Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilerari buruzko araudi berria onartuko dugu, euskaraz jakitea betebeharra edo oztopo gaindiezina ez den araudi batera itzuliz euskararik ez dakiten herritarrak Administrazioan sartzeko.
- Justizia Administrazioarekin lan egingo dugu prozeduretako iraupena laburtzeko.



2.14. Herri segurtasuna eta larrialdiak

HELBURUAK

1. Nafarroa, Espainiako Komunitate seguruena.
2. Foru Polizia integrala eta erreferentziazkoa.
3. Guardia Zibila eta Polizia Nazionala Nafarroan gelditzea eta haiekin elkarlana egitea.
4. Babes zibileko indar ezberdinen koordinazioa hobetzea.

NEURRIAK

- Nafarroarako Segurtasun Publikoko Plan bat modutuko dugu, delituak prebenitzeko ekintza-planarekin eta gazte-bandak kontrolatzeko ekintza zehatzekin, aisialdi-droga-lapurretaren zirkulua hausteko, gazteei eta emakumeei prestakuntza emanaz arriskuak gutxitzeko gauza izan daitezzen eta kalean gero eta arma gehiago egotearen kontra irmo jokatzuz.
- Foruzaingoa 1.500 agentez zabalduko dugu, plantilla gaztetuz, Estatuarekin negoziatuz eta irtenbide juridiko guztiak bilatuz hura azken helburuan Polizia integral eta erreferentea bihurtzeko.
- Foruzaingoari Nafarroako eta beste komunitateetako beste polizia-talde batzuen maila bereko soldatak bermatuko dizkiogu.
- Nafarroako Foruzaingoarentzat Komisaria Zentral berria eraikitzea bizkortuko dugu.
- San Adrianen eta Irurtzunen Foruzain komisaria berriak eraikiko ditugu.
- Guardia Zibilarekin eta Polizia Nazionalarekin elkarlana egitea sustatuko dugu, hitzarmen egonkorrak eta leialak sinatuz, non elkarrekin informazioa ematen den, sinergiak bilatzen diren eta prestakuntza edo/eta ekintza operatiboak elkarrekin egiten diren.



3 Gizarte- garapena eta ongizatea



3.1. Osasuna

HELBURUAK

1. Osasun sistema kalitatezkoa eta bikaina lortzea, Espainian eta Europa mailan genuen lidergoa berreskuraturik.
2. Osasun sistemara iristeko bidea hobetzea, Lehen Mailako Arretan artatuak izateko oztopoak ezabatuz eta itxaron zerrendak nabarmen murriztuz.
3. Gardentasunean, herritarren parte-hartzean, erantzukizunean eta gobernu onean oinarritutako kultura berri bat Osasun Administrazioan.
4. Profesionalendako osasun-sistema erakargarria, non motibazioa, inplikazioa eta satisfazio profesionala lehenesten diren. Talentua erakartzea eta atxikitzea.
5. Pertsonen behar integraletara bideratutako osasun sistema, arreta integratua eta kronikotasunera bideratua duena.
6. Prebentziorako, haur-osasunerako eta zahartzaroko eritasunetarako politikak lehenestea.
7. Lehen Mailako Arreta eta Osasun Mentala sustatzea.
8. Minbiziaren tratamendua hobetu eta medikuntza zehatza bultzatzea.
9. Eraldaketa digitala sustatzea.
10. Berrikuntza eta ikerketa klinikoa sustatzea.
11. Big Data eta medikuntza aurrusalea sustatzea, balioa, osasun emaitzen hobekuntza eta emaitza horietako desberdintasunen murrizketarako helburu.
12. Baliabide publikoen kudeaketan bikaintasuna iristea eta eragingarritasuna hobetzea, hurrengo belaunaldiei osasun publiko unibert-sala, kalitatezkoa eta jasangarria bermatzeko funtsezko elementuak baitira.



NEURRIAK

- Aurrez aurreko kontsulta bermatuko dugu, pertsonalki ebaluatuak izan nahi duten herritarren borondatea errespetatuz.
- Lehen kontsultarako itxaron zerrenda %0,05 murriztuko dugu, gaur egun zain dauden 60.000 lagunetatik 20.000ra.
- Itxaron-zerrendarako plan integrala ezarriko dugu, bai hasierako kontsultetarako, bai errebisioetarako, proba osagarrietarako eta esku-hartze kirurgikoetarako.
- Lehentasun klinikoarekin itxaron-denborak hobetzeko Legea onartu eta ezarriko dugu. Legeak errebisioetako gehienezko itxaron-denbora jasoko du, baita minbizia bezalako prozesu larrietarako tratamendua abiatzeko ere.
- Tuterako Lourdes auzoan hirugarren osasun zentro bat eta Ripagaina, Cascante, Lizarra eta Atarrabian osasun zentro berri bana eraikiko ditugu.
- Tafallan Osasun eta Espezialitate Zentro berria eraikiko dugu, Nafarroako erdigune osorako erreferentea.
- Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearentzat azpiegitura berriak sortuko ditugu, hala nola, haur eta nerabeen osasun mentaleko zentro berri bat, kontsultak egiteko eremuak eta Egunazko Ospitalea izango dituen, eta, halaber, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ospitalizazio psikiatrikoko eremua zabaldu eta berrituko dugu.
- Pediatriako ZIU berria eraikiko dugu.
- Tuterako Ospitalez Kanpoko Larrialdi Zerbitzuari erradiologia-ekipoa emango diogu, Tuterako Eremu osorako ebazpen-gaitasun handiagoko erreferentziatzko zentroa baita, larrialdi ez hain larrietarako RSHra joan beharrik gabe.
- UPNk konpromisoa hartzen du NOZ-O osoko gelak hobetzeko (Unibertsitate Multzoa, Lizarrako Ospitalea eta Tuterako Ospitalea) eta hala eskatzen duten eritasunetarako gela indibidualak sustatzeko, gaur egun dauden gela indibidualak gutxienez bikoiztuz.
- Osasun-profesionalen soldata baldintzak hobetuko ditugu, soldata finkoak inguruko profesionalenekin parekatzeko.



- Medikuen eskusibotasuna kendu egingo dugu, egunez egungo jarduera eta emaitzen ebaluazioa eginez, kontrola sustatuz eta ondo egindako lana bultzatuz.
- Estaltzeko zailak diren postuetarako pizgarriak jarriko ditugu, hiru Osasun Arloetan, Lehen Mailako Arretan eta eskualdeko ospitaleetan, gaurko Gobernuak, lau urte ezer asko egin gabe egon ondoren, legealdiaren bukaeran onartutako araudi batek sortu dituen arazoak konpontzeko.
- Ibilbide profesionalaren eredia berrikusiko dugu, ebaluatzeko moduko benetako garapen profesional eta zientifiko bati loturik egon dadin, langile guztien ibilbide profesional berriaren esparruan.
- Gure komunitatera profesionalak erakartzeko politikak eta kanpainak egingo ditugu.
- Nafarroako osasun-zentroetan dauden barne-mediku egoiliarak (MIR) bertan geldi daitezen lan egingo dugu, prestakuntza-aldia amaitu aurretik kontratu eta eskaintza erakargarriak eginaz.
- Iktusaren Arretarako Plan Integrala onartu eta gauzatuko dugu, eta Osasun Plan berrian sartuko ere.
- Zainketa Paliatiboei buruzko Legea landuko dugu.
- Osasunerako hezkuntza-kanpainak eta bizi-ohitura osasungarrien aldekoak bultzatuko ditugu (alkohola, erretzea, gehiegizko pisua eta gizentasuna, ariketa fisikoa...).
- Sexu-bidezko gaixotasunak prebenitzeko eta goiz detektatzeko programak ezarriko ditugu, gaitz horiek azken 8 urte honetan asko ugaldtu baitira, eta bai nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzeko programak ere.
- Nafarroak UPNrekin txertoetan Espainian zuen gailentasuna berreskuratuko dugu.
- Osasun Mentaleko Plana eta Droga-menpekotasunen kontrako Prebentzio eta Arreta Plana bultzatuko ditugu.
- Osasun Mentaleko kalitatezko arreta sustatuko dugu, psikologo kliniko gehiago kontratatuz, azpiegiturak hobetuz eta haur psikiatriako espezialitatearen akreditazioa bultzatuz.



- Suizidioa Prebenitzeko Planak hobetu eta behar adina baliabidez hornituko ditugu.
- Nafarroan Minbiziaren Arretarako Plan Estrategiko bat eratu eta ezarriko dugu.
- 45 urtetik aurrera bularreko minbizia detektatzeko programari eutsiko diogu, Espainian aitzindaria izan baita UPNren Gobernua- rekin sortu zenetik, eta pandemiaren ondoren bularreko eta kolo- neko minbiziaren detekzio goiztiarreko programek hartu duten at- zerapena gaundituko programa horiek pandemiarekin inon baino gehiago atzeratu baitziren Nafarroan.
- Biriketako minbizia goiz detektatzeko programa ezarriko dugu.
- Nafarroako Onkologia Arloa sortuko dugu, 2015ean, UPN gober- nuan zela, profesionalekin adostua eta ordutik geldiarazia.
- Berrikuspenetarako itxaron denborak arrazionalizatu eta gutxituko ditugu.
- Herentziazko Minbiziaren Unitateari benetako bultzada eta gara- pena emango diogu. Minbizien % 5 eta 10 bitartean bakarrik he- reditarioak diren arren, kasu horiek, izan ere, beste minbizek ez bezalako tratamendua behar baitute, eta espezializazio handiko unitateetan egindako jarraipena.
- Minbiziaren inguruko ikerketa klinikoa sustatuko dugu.
- Medikuntza Plan Pertsonalizatua edo Zehaztasunezkoa ezarriko dugu, Minbiziaren Tratamendurako interes berezia baitu. Hala ere, beste arlo batzuk ere hartuko ditu, hala nola neurozientzia, diabe- tesa, adimen-nahaste larria, autismoa, etab. Zehaztasuneko medi- kuntzan ikerketa sustatuko dugu.
- Balioetan oinarritutako eta osasun-emaitzetara bideratutako ku- deaketa bultzatuko dugu, pazientearen ikuspuntuko datuak emait- za gisa sartuz.



3.2. Hezkuntza

HELBURUAK

1. Askatasunezko eta adoktrinamendurik gabeko hezkuntza, non familiek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza eredu hau-tatuko duten, Haur Hezkuntzatik Unibertsitatera.
2. Kalitatezko hezkuntza, anitza eta barne-hartzailea, ebaluazioa hobekuntzarako oinarritzat erabiltzen duena.
3. Ikastetxe publikoen autonomia eta ardurazko gobernua sustatzea, hezkuntza komunitatearentzat programa erakargarri eta egunera-tuak garatzeko.
4. Unibertsitateen, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arte-ko lankidetzari handiagotzea, hezkuntzatik lantokira pasatzeko bi-dea erraztu eta sortutako berrikuntza eta ezagutza gizarteari hela-raztea aisatzeko.
5. Irakasleen prestigio soziala eta irakasle lanbidearen erakargarriti-suna berreskuratzea.
6. Gure lurraldeko errealitate sozial eta instituzionalari loturiko irakas-kuntza, elkarrizketan eta Nafarroako hezkuntzari buruzko hitzar-men sozial eta politikoan oinarritua.

NEURRIAK

- Ikastetxe publiko eta hitzartuen eskaintza bidezkoa, orekatua eta elkarren osagarria bermatuko dugu, familiek beren seme-alabent-zat nahi duten hezkuntza-mota askatasunez erabakitzeko aukera emateko moduan.
- 2023/2027 legealdia amaitu baino lehen PAI gure hezkuntza-sistemako beste hizkuntza-eredu bat bihurtzea sustatuko dugu.
- Berrito ere gizarte-eskaria lehen mailako faktoretzat hartuko dugu indarrean dauden hezkuntza-hitzarmenak berritzeko, ikastetxe hauendako behar adinako finantziazioa bermatuz, sare hitzartua sare publikoaren osagarritzat eta ez subsidiariorantz hartzen baita.



- Ingelesez ematen den eskol ordu kopurua handituko dugu, ikasle guztiak, hezkuntza-etapa amaitzean, gutxienez BI-aren baliokidea den mailara iristeko.
- Familiendako 0-3 urteko doako etapa bermatuko dugu eta horren unibertsalizazioaren alde lan egingo dugu, 0-3ko geletara sartzeko aukera ematean bi gurasoek lan egiten duten familiak eta guraso bakarreko familiak lehenetsiz.
- Ikasgeletako ikasleen ratioa murriztuko dugu.
- Lanbide Heziketa Duala ezartzeko Plan bat garatuko dugu, izan ere, Lanbide Heziketari buruzko 3/2022 Legearen garapenarekin heziketa-ziklo bakoitzeko irakaskuntzaren %25 gutxienez enpresetan egingo da.
- Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatuko dituen eta ikasleen talentua eta esfortzua sarituko dituen beka deialdia egingo dugu, familien egoera ekonomikoa eta hezkuntza-emaitzak kontuan hartuta.
- Erriberan NUPeko campusa finkatzea sustatuko dugu, bere ingurune produktiboari eta bere garapen estrategikoko ardatzei lotutako tituluak ezarriz, hala nola, nekazaritzako elikagaiak, turismoa eta energia berriztagarriak. Aldi berean dagoeneko ari diren titulazioak sendotzeko apustua egiten dugu, emaitza bikainak ematen ari baitira maila akademikoari eta tituludunen lan-aukerei dagokienez.
- Eskola-liburuen kontrol-sistema bat ezarriko dugu, ikasleak oinarrizko printzipio demokratikoetan heztea bermatuko duena, Nafarroako errealitate instituzionala errespetatuz eta edonolako adoktrinamenduak saihestuz.
- Gurasoek seme-alaben hezkuntzan duten erantzukizuna errespetatu eta sustatuko dugu, hezkuntza sistemak ez ditzan behar bezalako adostasun soziala ez duten baliok transmititu, SKOLAE bezalako programekin gertatu den bezala, eta LOMLOEn dauden curriculum-arlo batzuek nahi duten bezala.
- Landa eskolaren aldeko apustua egingo dugu, lurraldean pertsonak finkatzeko oinarrizko elementu gisa eta Nafarroaren garapen orekaturako giltzarri gisa. Ikastetxe mota honetan lan egiten duten irakasleei egonkortasuna emango diegu, eta kasuko Udalekin batera bai aztertuko ere zer neurri hartu daitezkeen jantokiak eta eskola-garraioko ibilbideak eremu bakoitzaren beharretara egokitze.



- Eskola-uztearen tasa murrizteko lan egingo dugu, horretarako DBHtik alde egindako nerabeendako prebentzio neurriak eta neurri alternatiboak biltzen dituen berariazko plan bat onartuz, hezkuntza sistema aukera berdintasuna bermatzeko oinarri izan dadin.
- Ebaluazioaren kultura sustatuko dugu hezkuntzaren kalitatea hobetzeko funtsezko elementu gisa.
- Legealdi honetan hasitako egonkortze prozedurak bururatuko ditugu, gure hezkuntza-sisteman dagoen aldi bateko irakasleen kopuruari dagokionez gutxieneko estaldura batekin abian jarritakoak. Behar adina lanpostu deituko ditugu, Nafarroako hezkuntzaren proportzioak eta beharrak errespetatuz, aldi bateko irakasleak %10 baino gutxiago izan daitezzen.



3.3. Adineko pertsonak

HELBURUAK

1. Adinekoek Nafarroako gizartean duten garrantzia areagotzea.
2. Zahartzaro aktiboa eta adinekoen bizitza autonomoa sustatzea.
3. Adineko jende askoren nahi gabeko bakardadearen kontra lan egitea.

NEURRIAK

- “65 urtetik gorako pertsonendako estrategia” bat egingo dugu, eta ezarri beharreko neurri ezberdinetarako aurrekontua sortuko. Legealdiaren lehen urtean argitaratuko da.
- Beren etxean bizi nahi duten adineko pertsonen laguntzeko programa bat jarriko dugu martxan, haien herrietara eta etxeetara zerbitzuak gerturatuz eta etxeko eremu seguru eta irisgarriak bultzatuz.
- Adinekoen elkarten finantziaketa hobetuko dugu elkarte horiek biziberritu, bakardadea prebenitu eta dependentzia prebenitzeko duten eginkizuna indartzeko, eta erretiratuen eta adinekoen elkarten klubetan jarduera eta zerbitzu berriak ezartzea sustatuko dugu, jubilatuz gazteagoak erakarri nahian.
- Zahartzaro aktiboa sustatzeko eta adinekoek gure gizartean duten zeregin garrantzitsua indartzeko neurriak sustatuko ditugu: horien artean, ariketa fisikoa egitea, bizitza osoan prestakuntza hartzea, boluntarioria eta partaidetza politiko eta soziala.
- Adinekoen gabezia teknologikoa murrizteko lan egingo dugu, IKT prestakuntza eta arlo honetako esperientzien trukea sustatuz.
- Adinekoen Bakardadea Prebenitzeko Programa prestatu eta ezarriko dugu.



3.4. Mendeko pertsonak. Autonomia eta arreta soziosanitarioa sustatzea

HELBURUAK

1. Nafarroa berriro mendeko pertsonen arretan aitzindari.
2. Dependentsia edo gaixotasun kroniko jakin batzuk dituzten pertsonen arreta soziosanitario integratua emateko eredu bat, zeinean pertsona izango den ardatza eta hautatzeko askatasuna bermatuta egongo den.
3. Adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonak beren etxeetan bizi daitezen laguntzea.
4. Desgaitasun edo gaixotasun kronikoengatik dependentsia duten pertsonak zaintzen dituztenei laguntza ematea.

NEURRIAK

- Mendekotasuna baloratzeko, AIP egiteko eta laguntza edo zerbitzuak emateko epeak murriztuko ditugu, Gizarte Zerbitzuen Karteran ezarritako baldintzak bete arte, gutxienez.
- Egoitza-zerbitzu eta egunazko zentro hitzartuetan 400 postu berri sortuko ditugu mendekotasunaren itxaron-zerrenda kentzeko, eta PZA ereduan oinarritutako egoitza- eta egunazko arreta-ereduak sustatuko ditugu.
- Ko-ordainketa arautzen duen araudia aldatuko dugu, mendekotasuna duten pertsonen eta familien karga arintzeko, egoitzako eta egunazko zaintzarako postuen kofinantziazioan.
- Arreta Soziosanitario Integratuari buruzko Foru Legea onartuko dugu, prestazio eta zerbitzu soziosanitarioen kartera barne hartzeko, pertsonen zerbitzu horiek hartzeko duten eskubide subjektiboa bermatzeko eta sistema kudeatzen duen Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza Nagusia sortuko dugu, sistema modu integratuan kudeatu dezan, eta berriazko aurrekontu egonkorra emango diogu.
- Premia sozialak dituzten pazienteendako Historia Soziosanitario Bakarra ezarriko dugu.



- Gaitzondoak erresidentzia batean egiteko baliabideak ezarriko ditugu Nafarroa osoan.
- Mendekotasuna duten adineko eta ezinduei etxean egoteko Laguntza Soziosanitarioa Emateko Programa martxan jarriko dugu, Nafarroa osoan, Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuaren osagarria. Programa honek etxean geratu nahi duten eta horretarako laguntza behar duten pertsoneri, besteak beste, honako zerbitzuak emango dizkie: fisioterapia, logopedia, etxean janaria, arropa garbiketa etxean, osasun kontsultetara joateko garraio egokitua, erosketak, beste herrri batean kudeaketak egiteko laguntza, podologia, etab. Hartarako, zerbitzu-txeke bat eskainiko zaie, profesionaleri, elkarteei nahiz enpresei behar dituzten zerbitzu horiek erosi ahal izateko.
- Landa eremuetarako, Egunazko Zentro Erabilera-anitzak sortuko ditugu, Zentro bakoitza kokatu behar den ingurunearen berariazko ezaugarrietara eta hara behar duten pertsonen berariazko premietarako egokituak, batez ere mendekotasun maila moderatua duten edo bakarrik bizi diren adineko pertsonak gogoan. Egunazko zentro horiek adineko pertsonak edo adin bateko desgaituek gehiago beharra egitea galarazi edo atzeratzea izango dute helburu, pertsona horiek beren ingurunean atxikiz, eta familiei haiek zaintzen laguntzea.
- Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunaren Prebentziorako zerbitzuak deblauki sustatuko ditugu.
- Mendeko pertsonak zaintzen dituztenentzat, urtean 15 eguneko atsedeen eskubide berria ezarriko dugu, hartarako, egoitzetan. Atsedeen Plazak sortuz. Hori gauzatzeko, leku horietara sartzeko laguntza batzuk ezarriko ditugu.
- Nafarroako mendeko pertsonen Zaintzaileendako Laguntza Programa integrala sortuko dugu, prestakuntza, laguntza tekniko eta ekonomikoak eta atsedeen programak eskainiko dituena. Era berean, pertsona horientzat autozaintzan trebatzeko programak ere bultzatuko ditugu.



3.5. Desgaituak

HELBURUAK

1. Desgaituek eskubide berdintasuna izatea gizartean.
2. Gizarte irigarri eta barne-hartzaile bat pertsona guztientzat, eta bereziki desgaituentzat.
3. Desgaituek partaidetza aktiboa eta bizitza independente eta autonomoa izatea.

NEURRIAK

- Desgaitasun-maila baloratzeko epea murriztuko dugu Karteran ezarritako epeen alderako, Espainiako denborarik hoberenak erdietsi arte.
- Zerbitzuen deszentralizazioa sustatuko dugu, desgaituen aukera-berdintasuna bermatzeko, bizi diren herria edozein dela ere.
- Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea Arauditan osoki garatu dadin onetsiko dugu, gehienez urtebeteko epean.
- Legealdiaren lehenengo 6 hilabeteetan Irisgarritasun Plan Estrategiko bat onartuko dugu, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea aplikatzera zuzendutako diagnostiko eta helburu argiekin eta hura betetzeko egutegi batekin. Urteko Plan Operatiboak Plan honetan sartuko dira.
- Taxiak, GGIak eta autoeskoletako autoak egokitzeko laguntzak berreskuratuko ditugu.
- Orik 6 urtera arteko Arreta Goiztiarreko zerbitzua bermatuko dugu, familian eta ingurunean zentratutako arreta-eredu batekin, itxaron-zerrendak ahalean gutxituz eta, helburu horiek erdiesteko, arreta hori ematen duten hirugarren sektoreko entitateak errespetatuz eta finantzatuz.
- Hezkuntzako Barne-hartze Programak sustatuko ditugu, Hezkuntza-premia berezien diagnostiko goiztiarra egitea eta hezkuntza-etapa guztietan desgaitasuna duten ikasleei beren premia berariazkoen arabera arreta ematea bermatzeko, ikastetxe arruntetarako programak indartuz, baina familiek hezkuntza bereziko ikastetxeak aukeratzen dituztenean haien erabakia errespetatuz.



- Ortoprotesi zerbitzuen Katalogoa hobetuko dugu.
- Zailtasun sozioekonomikoak dituzten pertsonendako laguntza-produktuak eskuratzeko diru-laguntza indibidualen deialdia egingo dugu urtero, produktu horien ohiko hornikuntza-sistema osatzeko.
- Lasterbeharrez Esparru Hitzarmen bat lizitatuko dugu laguntzadun etxebizitzan, etxebizitza tutelatuen eta etxebizitza gainbegiratuen kopurua bikoizteko.
- Adimen Gaixotasun Larrien programa berrikusiko dugu, dauden baliabideak handituta itxaron-zerrendak ezabatzeko, eta adimen gaixotasuna duten pertsonentzat ikuspegi soziolaborala gehitzeko. Programak bereziki aintzat hartuko ditu adimen nahaste larria, nor-tasun nahastea edo gizarte ahultasuna duten pertsonen beharrak.
- Okupazio Zentroak prestazio bermatu bihurtuko ditugu, baliabide honetara iristeko itxaron-zerrendarik egon ez dadin. Horrekin batera, behar diren plazak gehituko ditugu, gutxienez 30 plaza berri sortuz, eskubide hori bermatzeko.
- Desgaituak lan munduan txertatzeko programak indartuko ditugu, orientazioa eta prestakuntza haien beharren arabera hobetuz eta egokituz, ibilbide indibidualizatuak garatuz, laguntzadun lanpostuak hobetuz eta malgutuz, Enplegu Zentro Bereziatarako laguntza-ren kalitatea hobetuz eta hirugarren sektoreko entitateei desgaituak merkatu arruntean txertatzeko programak gauzatzen lagunduz.
- Enplegu Zentro Berezietan inbertsioak egiteko aurrekontuak handituko ditugu.
- Iragaitzazko Etxebizitzan programa pilotu bat jarriko dugu martxan, ustekabeen desgaitasunen bat izan duten pertsonentzat, beren ohiko etxebizitza egokitu edo etxebizitza irisgarri berria eskuratzeko behar duten denboran.
- Desgaituendako Kirola Sustatzeko Plana prestatuko dugu, kirol federazioen parte-hartzearekin. Kirol entitateetan desgaituendako atalak sortzea bultzatuko dugu.
- Zerbitzuak eta laguntzak eskuratu ahal izateko, Familiendako Errenta Normalizatuaren sistema ezarriko dugu.



3.6. Gizarte zerbitzuak eta gizarte barne-hartzea

HELBURUAK

1. Eskubideen Bermean oinarritutako gizarte zerbitzuen sistema finkatzea.
2. Pertsonen beharretara egokitutako kalitatezko gizarte zerbitzuak.
3. Gardentasuna bermatuko dugu, bai eta gizarte-zerbitzuetara eta prestazioetara sartzeko epeak bete daitezela ere.
4. Lankidetzaren publiko-pribatua berreskuratzea, kalitatezko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko modu gisa.
5. Aukera berdintasunezko Nafarroa, inor atzean uzten ez duena, zeinean jende gehienek lanpostua izatea gizarteratzerik hoberena den. Pobrezia eta gizarte bazterketa tasa 2008ko mailetara murriztea.

NEURRIAK

- Errenta Bermatuari eta Barne-hartze eskubideari buruzko Foru Legea aldatuko dugu, eta Gizarte-txertatze Errenta bihurtuko, zeinak, Europako herri gehienetan bezala estaldura zabala izango duen, behar adinako diru-sarrera ez duen edonori laguntzeko. Legeak hasieratik laguntza profesionala ezarriko du errenta hartzen duten guztientzat, akonpainamendu eta txertatze programen bidez, eta betebeharrak argiak ezarriko dizkie, norbere egoeraren arabera. Horien artean: lanpostu bat bilatzea eta eskaintzen den edozein lanpostu onartzea, legezko baldintzak betetzen baditu eta bera hartarako prestatua bada; eta ere lan aukerak hobetzeko prestakuntza hartzea, haren kontu diren profesionalak hala behar dela uste badute.
- Jarraipena eta akonpainamendu profesionala bermatzeko, oinarritzko Gizarte Zerbitzuei beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak emango dizkiegu errenta hartzaileei behar bezalako gizarte akonpainamendua eman ahal izateko. Hartarako, Gizarteratze Programako Gizarte Langileen kopurua gutxienez bikoiztu egingo dugu eskaerari erantzuteko hala behar den herri guztietan, kasu guztietan gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatua bermatzeko moduan.



- Horrez gain, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitza gutxienez Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-teknikari batez indartuko dugu. Honek, lan egiteko adinean gizarteratze programara datorren pertsona bakoitzari bere lan-aukeren gaineko azterlan bat egingo dio, eta bai eta lan-gizarteratze ibilbide bat pertsonalizatua modutuko ere, baldin azterlana ikusita hala komeni bada.
- Gizarte Zerbitzuen Foru Legea eta Gizarte Zerbitzuen Kartera aldatuko ditugu, biak modernizatzeko eta zerbitzu horiek behar dituzten pertsonen premia berrietara egokitzeko.
- Legealdiaren lehen sei hilabeteetan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko Parte-hartzaile eta Adostua onartuko dugu. Plan horrek legealdian arlo horretan aurrera egiteko bidea markatuko du eta Nafarroako gizarte zerbitzuen mapa jasoko.
- Beharrezko mekanismoak ezarriko ditugu, behingoz, gizarte-zerbitzuen arloan erreferentziako profesionala hauta dadin bermatzeko.
- Gizarte Zerbitzuen Kalitate Plan berri bat onartuko dugu, kalitate-sistema homogeen eta neurgarriak ezartzea eta zerbitzu horien kalitate-maila hobetzea helburu.
- Zerbitzu sozial eta soziosanitarioetara iristeko bidea guztiz gardena izango da: Mendekotasun-sisteman eta/edo prestazioetan eta zerbitzu soziosanitarioetan sartzeko eskatzen duen pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio zer epe gehienezko bete behar duen Administrazioak laguntza hori emateko, berak zer eskubide dituen epe horretan arreta ematen ez bazaio eta bere espedientea zer tramitazio unetan dagoen. Horrez gain, hileroko prestazio bakoitzaren batez besteko itxaron-denborak eta dagoen benetako itxaron-zerrenda argitaratuko dira.
- Urtero gizarte zentro eta zerbitzuetan egindako ikuskapenen gaineko txosten bat egingen da eta Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko.
- Zerbitzuen Partaidetza Kontseiluei berriro protagonismoa emango diegu, zerbitzuen haien kudeaketako erabakiak hartzerakoan beneratan inplika daitezzen sustatzeko.
- Gizarte-zerbitzuak emateko Kuartipartituak sortutako fundazio publikoa kenduko dugu, eta entitateekin eta enpresekin kontratu eta gizarte-kontzertuen bidez lan egiteko sistemara itzuliko, bai eta Administrazioak zuzenean zerbitzuak emanaz ere.

Foru eta Udal
Hauteskundeak

Programa
Gizarte-
garapena
eta ongizatea



3.7. Gazkeak

HELBURUAK

1. Gazteen langabezia murriztea eta gazteen ekintzailletza sustatzea.
2. Gazteei emantzipatzen laguntzea.
3. Landa eremuko gazteendako hobekuntzak.
4. Gazteen bizi-kalitatea eta gizartean parte hartzea.

NEURRIAK

- Gazteendako Enplegu Programa berriazko bat jarriko dugu martxan, orientazio pertsonalizatuarekin, ibilbide indibidualekin, enpresen eta gazteen beharren arabera prestakuntzarekin eta kontrataziorako pizgarriekin, batez ere kontratazio iraunkorretarako.
- Gidabaimena lortzeko laguntzak ezarriko ditugu 18 eta 22 urte bitarteko gazteentzat.
- Gazteei hizkuntza-tituluak lortzeko azterketak finantzatzen lagunduko diegu.
- Gazteen ekintzailletza bultzatuko dugu enpresari izateko prestakuntza doakoarekin eta gazteek bultzatutako enpresa berrien kostuak eta bideragarritasun-azterketak diruz lagunduz.
- Atzerrian diren nafarrak itzularazteko laguntza-neurrien Foru Lege bat onartzea sustatuko dugu, eta hartan gazteendako neurri berriazkoak ere barne sartuko.
- Talentu gaztea itzularazteko Plan integral bat onartu eta ezarriko dugu.
- Oposizioak prestatzerakoan aukera berdintasuna egon dadin beka sistema sortuko dugu, eta arlo hartako bateragarritasunak arautuko ere, autonomia-eskumenen esparruan.
- Gazte Ekintzailetzari Laguntzeko Legea egingo dugu, ekintzailetzari eta Nafarroan aukeraz betetako etapa berri bat hasi dadin laguntzeko.



- Gazteei etxebizitza bat erosi aurretik aurreztea ahalbidetuko dieten zuzeneko laguntzak ezarriko ditugu.
- Nekazari edo abeltzainak erretiroa hartzeko pizgarri bat proposatuko dugu, beren ustategia nekazari gazteei eskualdatzen badiete.
- Landa eremuan gazteendako aisialdi eta kultur jarduerak bultzatuko ditugu.
- Nafarroako Gazte Kontseiluaren finantziazioa handituko dugu, gazteek parte-hartzeko duten gunea baita, eta ahalean haren politizazioa saihestuko dugu. Eskualdeka, Gazte Kontseiluak sortuko ditugu gazteen parte-hartze aktiboa egituratzeko.

Foru eta Udal
Hauteskundeak

Programa
Gizarte-
garapena
eta ongizatea



3.8. Aniztasunari arreta

HELBURUAK

1. Arrazakeria, xenofobia, anti-ijitoismoa desagertarazteko lan egitea.
 2. Pertsona guztiak gizartean barne-hartzea, zein ere diren haien kultura, arraza, ideiak eta sinesmenak.
-

NEURRIAK

- Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko Foru Lege berri bat sustatuko dugu gizarte entitateekin batera eta neurri zehatzekin eta aurreikusitako ekintzekin.
- Etorkinak gure gizartean integratzea eta besteen baldintza beretan zerbitzu publikoetara jo ahal izatea sustatuko dugu.
- Hizkuntzak ikastea sustatuko dugu Nafarroako gizartean integratzeko bide gisa.

3.9. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna. Genero indarkeria. Sexu aniztasuna.

HELBURUAK

1. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna bizitzako etapa guztietan eta Nafarroako lurralde eta gizarte osoan benetakoa eta eragingarria izatea.
2. Soldata-diferentzia eta emakumeek lan-merkatua uztea amaitzea. Enplegu osoa, kalitatezkoa eta baldintza beretan.
3. Landa-eremuko emakumeek lurraldez, gizartez, lanez, ekonomiaz eta zerbitzu publikoz dituzten diferentziei eta berezitasunei erantzutea.
4. Sexu-indarkeria eta genero-indarkeria diren gaitzak behingoz amaitzea.
5. Sexu-aniztasunari aitormena ematea eta LGTBI+ pertsonen eskubideberdintasuna babestea. Homofobiaren eta transfobiaren aurkako borroka.

NEURRIAK

- Berdintasun balioetan hezteko estrategia bat onartuko dugu; adoktrinamendurik gabe, hala ere.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean jarraituko dugu lanpostuak eskuratzerakoan eta enpresen barrenean. Enpresetan berdintasun planak onartu eta ezartzea sustatuko dugu eta arlo horretan aurrera egin dutela justifikatzen duten enpresentzat, laguntzeko eta aintzatesteko neurriak eta ekintzak ezarriko.
- Nafarroako Landa-Emakumearen Estatutua onartuko dugu, zeinak neurri eta ekintza berariazkoekin haien eskubideak eta aukerak bermatuko dituen, baldintza beretan eta zerbitzu berekin.



- Ahuluneak detektatzeko aplikatzen ari diren politiken eragingarritasuna aztertuko dugu eta ebidentzian oinarrituta, plan estrategiko benetan eragingarria egingo dugu, zeharkako ekintzen bidez gazteen arteko genero-indarkeria ezabatu eta berdintasunezko harremanak eta gatazken bakezko konponbidea sustatzeko.
- Genero-indarkeriaren prebentzioa bultzatuko dugu, indarkeria hori gertatzen ari ote den zantzuak antzeman ditzaketen profesionalak prestatuz eta herritarren lankidetzarekin hura detektatzen irakasteko programak sustatuko, Nafarroa osoan.
- Homofobia eta transfobiaren ondoriozko jazarpena eta indarkeria prebenitzeko neurriak hartuko ditugu, Nafarroa osoan, landa eremuan arreta berezia jarritz.



3.10. Familiak eta haurrak

HELBURUAK

1. Familia guztiendako aitortza eta babes, behar handienak dituztenei laguntza berezia emanez eta seme-alabak dituzten familien gaitasun ekonomikoa hobetuz.
2. Lan-bizitza, bizitza pertsonala eta familia-bizitza bateratzen erraztea, seme-alabak nola zaindu nahi dituzten libreki erabakitzeko eskubidea errespetatuz, amek lana lortzea erraztu eta soldata-diferentziak murriztea.
3. Ikuspegi integralaren bidezko haurren babes.

NEURRIAK

- 1.000 euroko laguntza ezarriko dugu haur bat jaiotzeagatik.
- Zerbitzu eta prestazioak jaso ahal izateko, errenta sistema normalizatua ezarriko dugu.
- Sozietateen gaineko Zergan, Nafarroan egoitza fiskala eta lan zentroak dituzten enpresen gastuen % 15erainoko kenkaria ezarriko dugu, lan eta famili bizitzak bateratzea faboratzen duten neurriak ezartzen badituzte: lan orduak malgutu, telelana martxan jarri, edo lanaldi zatitua lanaldi jarraitu bihurtu. 6.000 euro gehienez.
- Eszedentzia hartzeko eta lanaldia murrizteko pizgarri eta laguntzen sistema bat ezarriko dugu, nahi dutenek lana eta familia bizitza bateratzeko modu honen aldeko apustua egin dezaten. Laguntza sistema horrek familia mota ezberdinen ezaugarri bereziak aintzat hartuko ditu bai eta eta gizonek zaintza lan hori beren gain hartu beharra ere, zaintza horietan genero rola ez iraunarazteko.
- Haurrak eta gainerako ahaideak etxean zaintzeko berariazko laguntzak ezarriko ditugu.
- Haurtzaroaren Foru Legea aldatuko dugu, arrisku eta babesgabeziako egoerak prebenitu eta haren izaera antifamilista ezabatzekeo neurri zehatzak hartzeko.
- Bullyingari eta ziberbullyingari aurre egiteko eta haurren aurkako indarkeria prebenitzeko Plana ezarriko dugu.



UPN

- Era berean, pediatria eta irakasleendako prestakuntza jarriko dugu martxan haurrenganako tratu txar edo utzikeria egoerak goiz antzemateko, baita adimen osasun-arazoak ere, behar diren esku-hartze mekanismoak lehenbailehen martxan jartzeko.
- Adopzio osteko laguntza-zerbitzua eskainiko diegu adoptatutako haurrei eta haien familiei. Hartan berariazko programak izango dira lotura segurua sortzeko, detekzio eta esku-hartze goiztiarra egiteko eta familia-harremana hausteko arriskuan dauden familiendako esku-hartze bereziak egiteko.



3.11. Etxebizitza

HELBURUAK

1. Etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskuratu beharra duten guztiek jasaten duten kolapsoa konpontzea.
2. Egoera jasanezin hau sortu duten erabaki sektarioei buelta eman eta arazo honen alderdi bakoitzean ekintza eragingarriari ekitea.

NEURRIAK

- Etxebizitza eskaintza handitu eta dibertsifikatu egingo dugu eskatzailen nahi eta beharrei behar bezala erantzuteko. Etxebizitza eskaintza sustatuko dugu bere gama osoan: etxebizitza babestuak, etxebizitza libreak, erostekoak nahiz alokatzekoak.
- Etxebizitza babestuak eraikitzeke prest dauden lurzorua mobilizatu ditugu, Donapea (4.500 etxebizitzarako UGPS) eta AHTko UGPS (11.000 etxebizitza horietatik ia 9.000 babestuak) bezalako urbanizazio paralizatuak edo atzeratuak berreskuratu eta bizkortuko ditugu.
- Datorren legealdian 6.000 etxebizitza babestu eraikiko ditugu.
- Jabeei zerga-pizgarriak emango dizkiegu, beren etxea Gobernuari laga edo partikularren artean alokatzen badute.
- Alokairu-merkatuan prezioen esku-hartze politikak alde batera utziko ditugu, frogaturik baitago horiek etxebizitza eskuragarriak gehitzeko ez dutela balio, eskaintza murriztea ekartzen baitute.
- Bizigarritasun Dekretua malgutu egingo dugu, kalitatezko etxebizitza askok kalitate hori gal ez dezaten eta erabilitako etxebizitzaren zaharberritze eragingarriagoa izan dadin.
- Eraikuntza-sektorearen industrializazioa bultzatuko dugu, hasi berri den Eraikuntza Industrializatzeko Zentroaren garapena lagunduz, etxebizitza-eraikuntza modernizatzeko, lanpostu kualifikatua-goetan oinarritzen diren metodo berriak ezarriz.



3.12. Garapenerako elkarlana

HELBURUAK

1. Garapenerako Laguntza Ofizialaren %0,7ra ITZULTZEA.
 2. Nafarroa berriro Garapenerako Elkarlanean erreferentzia bihurtzea.
-

NEURRIAK

- Garapenerako Laguntza Ofiziala pixkanaka handituko dugu legealdian zehar, 2026an Aurrekontuaren %0,7 berreskuratzea helburu.
- Garapenerako Elkarlan programen kalitatea hobetu dadin sustatuko dugu.



3.13. Kirola

HELBURUAK

1. Herritar guztiek oztoporik gabe eta segurtasunez kirol egiteko aukera izan dezatela.
2. Lehiaketa-kirola, eskola-kirola eta osasunarekin eta ongizatearekin lotutako kirola sustatzea.
3. Kirolean balioak sustatzea.
4. Kirola Nafarroako motor ekonomiko eta turistikoko gisa.

NEURRIAK

- Atletismo pista estali bat eraikiko dugu.
- Toki Azpiegituren Plana onartuko dugu, kirol diziplina guztien beharrak betetzeko.
- Nafarroako kirol federatuaren bihotza izateko moduko kirol hiri handi bat sortuko dugu Iruñean.